

**XEDAPENA, OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI GERENTEARENA, MEDIKU ERRADIOLOGO KATEGORIAN ALDI BATERAKO KONTRATAZIOKO ZERRENDETAN IZENA EMATEKO ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ONARTZEN DUENA.**

Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzailearen 2016ko uztailaren 13ko Xedapenaren bidez, erradiodiagnostikoko mediku espezialisten lan-poltsa egiteko deialdiaren oinarri orokorrak onartu ziren.

Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzailearen 2023ko apirilaren 19ko Xedapenaren bidez, deialdia baimendu zen, eta aldi baterako kontratazio-zerrendetan mediku erradiologo kategorian izena emateko epea ireki zen.

Jasotako eskabideak ikusita, zuzendari kudeatzaileak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu du, baztertzeko arrazoiak adieraziz, eta 5 eguneko epea eman du erreklamazioak aurkezteko. Xedapen hori OSATEKen webgunean argitaratuko da.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

### XEDATZEN DUT

**Lehenengoa:** Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea, baztertze-arrazoia adierazita, hala badagokio. Zerrenda hori xedapen honen eranskinetan dago.

**Bigarrena:** Xedapen hau Osatek, S.A.-ren webgunean argitaratzeko agintzea.

**Hirugarrena:** 5 eguneko epea ematea erreklamazioa jartzeko eta, hala badagokio, zuzenketa eskatzeko Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzaileari, idatziz, honako helbide honetan: Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua. 48011 Bilbao.